

oarsoaldea.hitza.eus

'Oilasko hegialak' albuma aurkeztu dute Eider eta Arrate Rodriguez ahizpek

3 minutos

Erein argitaletxearekin publikatu dute literatura eta arte plastikoak "dialogatzen" jarri dituen proiektuaren emaitza.





Oilasko hegalak albuma aurkeztu dute gaur Eider eta Arrate Rodriguez ahizpek. Argazkia: Erein Argitaletxea

Oilasko hegal batzuk ezin dutela hainbesterako eman pentsa dezake bateren batek, baina sormen iturri bilakatu dituzte Eider eta Arrate Rodriguez ahizpek eta gaur aurkeztu dute emaitza.

Oilasko hegalak albuma aurkeztu dute gaur, Erein argitaletxearekin publikatu dute literatura eta arte plastikoak “dialogatzen” jarri dituen proiektuaren emaitza.

Idazle errenteriarrek aitortu du badirela urte batzuk istorio horren haria trabatu zitzaiola; beti izan omen du oilasko hegalak jaten zituen ama bati buruz zerbait idazteko gogoia. “Oilasko erreka, familia normatibo bat haren inguruan eta ama bat soberan gelditutako hegalak jaten”. Hortik abiatuta sortu dute albuma; Eiderrek hitzak jarri ditu, istorioa josi, eta ilustrazio bidez batu dio kontaketa Arratek. Albumek zailtasun bat dutela aitortu du Eiderrek, “istorio zailak sinpleki kontatzea, irudi txikien bidez mundua azaldu. Hitz gutxitan dena esan”.

Bi ahizpek elkarlanean sortu duten albuma bi ahizpa dialogatzen jartzea ere izan da idazlearen esanetan, “Arrate Mexikon baitzegoen eta ozeano bat zein handia izan daitekeen orduan konturatu bainintzen. Lotu gaituen harietako bat izan da proiektua. Baina hegan egiteko ametsa eta beldurra ere atera da albumera; eta azkenik, bidaia ere badago”.

Arraterekin lan egitea plazera izan dela aitortu du Eiderrek, “oso haragizkoak dira sortu dituen pertsonaiak, eta paisaiak usaindu egin daitezke, horien tenperatura sumatu. Indartsuena, hala ere,

emozio sortzaile direla da”.

Sentitzeko sortua dela albuma erantsi du idazleak, “haserrea, bakardadea, berekoikeria, askatasuna, elkartasuna, maitasuna....”baina hausnartzeko ere pentsatuta dagoela dio, “haur zein gurasoentzat, bakarka edo familian”. Finean familiako kideek osatzen duten ekosistema beste begi batzuetatik ikusteko gonbita omen da *Oilasko hegalak*, eta posible balitz askatasun gogoa piztu nahi du idazleak irakurlearengan, “katarsi domestiko txikiak sortu. Zaila dela jakinda ere, beharrezkoa ere badelako”.

Liburua salgai dago 15 euroan.